

Maitasuna

Izaskun Armendariz Iroz
DBH 1. eta 2. kurtsoak 1. saria
Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola

Hainbeste gauza dira esaten dizkizudanak
eta zuk ez dakizu zer erantzun.
Nola egin hori konpontzeko?
Ez dago erremediorik, ezinezkoa da
honek grisa izaten jarraituko du, beti grisa izan delako
amaiera zoriontsurik gabe, printze urdinik gabe.

Iragana iragana da, ez da inoiz itzuliko
gure etorkizuna ez dago garbi
bakarrik orainaldia dago
malkoetan bustita.

Zugandik urrun sentitzen naiz
sutan erretzen ari naizela dirudi
baina honek ez du konponbiderik
gure maitasuna haizeak eraman du.

Bakarrik sentitzen naiz
Zure ausentziak inguratzen nau
Bihotza mila zatitan puskatuta daukat
Kristalezko botila bat erortzen denean bezala
Ez dakit aurrera jarraitu ahalko dudan
zeruan bila nazazu, zu itxoiten egongo naiz